

# BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure proiektua aplikazio bat izanik, zehazki jendeari erraztasunak emateko aplikazio bat izanik, haiekiko harremanak zuzenekoak izango dira. Hau da, gurekin kontuaktuan jartzeko aukera izango dute edozer gauza dela eta.

Alde batetik, gure proiektua gehiago zabaltzeko enpresa handi batekin jarriko gara kontaktuan esakaintza bat sortzeko. Horrela, haien enpresa ospetsuagoa izanik, bezeroen galderei haiek ere erantzungo ahal izango dute, gure harteko harremana zabalagoa izanda. Gainera, elektrodomestiko berriekin gure aplikazioa saltzen badugu, gure proiektuak aurrera jarraitzeko aukera handiagoa izango du, produktu on batekin aplikazio bat saltzen dugulako, bezeroari lana aurreztuz.

Bestalde, gure aplikazioa erabilerraza izatea nahi dugu, beraz denek erabiltzeko aukera izango dute edozein momentutan. Horrez gain, denborak aurrera egin ahala, enpresa gehiagorekin jarri gaitzke kontaktuan produktua zabaltzeko, hau da, bezero gehiago erakartzeko eta gure aplikazioak aurrera egin ahal izateko. Hori ere gutxi balitz, hemendik denbora batera, gure aplikazioari beste funtzio berri batzuk



sartu ahal izango dizkiogu bezeroen interea ez galtzeko.

Bezeroen interesa mantentzeko aldaketak egongo ditugu denborak

aurrera egin ahala. Haiek egin ditzakete gomendioak eta gure ideiak ere haiekin

kontrastatuko ditugu ondo iruditzen zaien jakiteko. Argi geratu dadila ez dugula aldaketarik egingo bezeroekin kontrastatu gabe, ez dugulako nahi haien interesa galdu. Horrela, haiek ere gurekin dute harremana zabalagoa eta gertuagokoa izango da, konfiantza irabaziz dituzten arazoak gurekin konpontzeko.

Azkenik, egia da haiekiko harremana automatizatua izango dela baina, konstantea eta argia izango da, haien zalantzak eta proposamenak kontrastatzeko.

Beraz, hau dena esanda, gure helburua aplikazioa poliki-poliki zabaltzea da. Horrela, bezero finko batzuk edukita, berrikuntza batzuk egin ahal izango ditugu gure bezeroak mantentzeko, eta zabaltzeko aukera gehiago izango ditugu, enpresa berriekin lotura bat eginez.